



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 16a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Azken lau urteotan euskaraz edo euskararekin zerikusirik duten gaiei buruz aurkeztu zaion kexa-kopuruari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina. (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua testuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

“Nafarroako sinboloak dira Nafarroako armaria, bandera eta ereserkia”.

Zioak: Foru lege proposamenarekin lortu nahi den xedea hobeki deskribatzea, sinboloak soiltasunez zerrendatuz.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 1. artikulua honek idatzita:

“Nafarroako Foru Komunitateak honako sinbolo ofizial hauek ditu: Nafarroako bandera, armaria eta ereserkia”.

Zioak: Proposamenaren bidez erregulatutako sinboloek ez dute zertan izan Nafarroako baka-

rrak, "esklusiboak" (Nafarroa identifikatzen dute, halaber, foruek, jotak, sanferminek eta beste jai batzuek, xabierraldiek, Erriberriko gazteluak, Sarasatek, Gaiarrek, ardoak, orburuek edo pikillo piperrek). Bai dira, ordea, ofizialak.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua honako testu honen bidez ordezkari zuzenketa:

“1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen sinboloak

Nafarroako Foru Komunitatearen sinbolo ofizial berekiak bandera, armaria eta ereserkia dira”.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu.

2. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua testua honakoarekin ordezkari zuzenketa:

“1. Nafarroako armariaren eta banderaren erabilera erreserbatuta utziko da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta foru erakundeen sinbolo edo logotipo nagusi eta eksklusiboak izateko.

2. Debeku da Nafarroako armarran edo banderan edozein sinbolo, sigla edo logotipo erabiltzea.

3. Produktuen edo salerosketa-gaien jatorriaren adierazgarri gisa bandera eta armarría erabili ahal izateko, bai eta alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo edonolako entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabili ahal izateko ere, Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunaren administrazio-baimena beharko da.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira Nafarroako banderaren, armariaren eta ereserkiaren erabilera-baldintzak kirol-, kultura- eta bestelako ekitaldietan, zeinetan herritarrek Foru Komunitatea ordezkatzeko parte hartzen baitute”.

Zioak: Sinboloak erabiltzeko araubidea argi eta soiltasunez definitzea.

4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIOAK MISTOAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 4. artikulua kontraesanean dago 3. artikuluekin. Sinboloak babesteko, nahikoa da 3. artikuluan xedatutakoa. Bestalde, bigarren apartatuak zorroztasun teknikorik ez du, zeren eta kontraesanean baitago 24. artikuluekin, erakunde guztiei ematen baitie zehapen-ahalmena.

6. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluen testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gaia jada araututa dago indarrean dagoen legedian.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 3. artikuluan ezarritakoari ezer berririk ez dio gehitzen. Izan ere, araudiaren eta jurisprudentiaren arabera, ez daude juridikoki babestuta eraikin publikoetan ofizialak ez diren sinboloak jartzea dakarten egintzak, eta, hain zuzen ere, hori Nafarroan ikusi izan dugu eman-

dako epaietan, udaletxeetan ikurrinak jarri direnean.

5. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

8. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluen testua honakoarekin ordezkatzeko zuzenketa:

“Nafarroako bandera ofiziala kolorez gorria da, Nafarroako armarría du erdian, laukizuzen-forman eginiko ehunki baten gainean, zeinak luzera eta zabalera proportzional baina aldakorak izanzen baititu”.

Zioak: Gaia jada araututa dago indarreko legedian, eta beharrik gabekotzat jotzen da horretan insistitzea.

6. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

9. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikuluen testua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege proposamenaren testua premiarik gabekotzat jotzen dugu, erredundantea izateagatik.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gainerako zuzenketekin koherentea izatea, eta egokiagoa delakoan.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 6. artikulua honela gelditzen da idatzita:

“6. artikulua. Nafarroako banderaren erabilera.

1. Nafarroako bandera Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen eraikin nagusien kanpoaldean paratuko da, bai eta Toki Administrazioa osatzen duten erakundeen egoitza ofizialetan ere; hori, halere, ez da eragozpena izanen Espainiako banderaren eta beste bandera eta ikur batzuen erabilera arautzen duen urriaren 28ko 39/1981 Legeak xedatzen duenerako.

2. Halaber, Nafarroako banderak lehentasunezko toki bat izanen du aurreko apartatuan aipatutako eraikin horien barrualdean.

3. Nafarroako bandera beste bandera batzuekin batera erabiltzen denean, lehentasunezko toki bat edukiko du; hori, halere, ez da eragozpena izanen Espainiako banderak dagokion toki nagusia har dezan. Espainiako banderarekin eta ez besterekin batera paratuta dagoenean, lehendakaritzatik begiratuta ezkerraldean kokatuko da, halakorik badago; ikusleentzat, berriz, eskuinaldean. Beste bandera batzuekin batera paratuta dagoenean, Espainiako banderaren eskuinaldean jarriko da, bandera-kopurua bakoitia denean, eta haren ezkerraldean, kopurua bikoitia denean, bi kasuetan lehendakaritza erreferentzia hartuta. Nolanahi ere, elkarren ondoan jartzen diren banderak tamaina berekoak izanen dira.

4. Nafarroako bandera masta erdian edo armarriri gaineko dolu-xingolarekin paratuko da dolu ofiziala dekretatu denean soilik".

Zioak: Modu errazagoan eta arrazoizkoagoan erregulatzea Nafarroako banderaren erabilera, estatuko legediaren eta erakundeen ohituren arabera. Gehiegizko betebeharrak eta sekula bete ez direnak kentzea, bandera eraikin ofizial guzti-guztietan paratzeari dagokionez; izan ere, nahikoa da erakunde nagusien egoitzetan paratzearekin.

7. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Errepikakorra da 6. artikulurako proposatzen den testuarekiko, eta ez da beharrezkoa.

13. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua izenburua honakoarekin ordeztuko zuzenketa:

"Erakunde eta entitate publikoek eginiko erabilera publikoa".

Zioak: Proposatutako testua hobeto doitzen zaio artikulua edukuari.

14. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua testuaren ordeztu honako hau proposatzen da:

"1. Nafarroako bandera toki lehenetsian jarriko da foru-erakundeen eta toki-erakundeen egoitza nagusien fatxadetan, eta ez da beharrezkoa izanen izaera nagusia ez duten zentro eta egoitzetan jartzea.

2. Halaber, ikusgai egonen da Nafarroako Gobernuak hala xedatzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren lekuetan.

3. Nafarroako banderaren izaera ofiziala ezertan kaltetu gabe, banderarekin batera beste bandera batzuk ere jarri ahal izanen dira, baina inoiz ez bakarka, baldin eta agintari edo organo eskudunak hala erabakitzen badu, honako arrazoi hauengatik: lotura kulturalak, gertaera historikoen efemerideak, ekitaldi instituzionalen oroitzapena, kolektibo edo lurraldeekiko elkartasun-ekitaldiak, jaiak, agintarien bisitak, senidetze-ospakizunak, nazioarteko erakundeetako kide izatea edo egoki iritzitako bestelako arrazoi sozial edo politikoak.

Agintari edo organo eskudunak zehaztuko du bandera horiek besteekin batera egoteko denbora.

4. Nafarroako Gobernuak lehendakariak dolu-egun ofiziala dekretatu duenean baizik ez da paratuko Nafarroako bandera dela haga erdian dela armarriri gaineko dolu-xingola duela, eta betiere hark agindutako epean.

5. Inolaz ere ez dira onartuko balio demokratikoekin edo giza eskubideen edo berdintasunaren errespetuarekin lotzen ez diren banderak".

Zioak: Proposatutako testuak argi azpimarratzen du banderaren berezko garrantzia.

15. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. eta 8. artikuluen testuaren ordezkari honako hau jartzeko zuzenketa:

“7. artikulua. Nafarroako banderaren erabilera.

1. Nafarroako bandera kanpoaldean jarri beharko da, eta lehentasunezko lekua hartu beharko du Nafarroako erkidegoaren eremuko eraikin publiko guztien barruan, hargatik Espainiako banderaren nagusitasuna eragotzi gabe.

2. Udalek, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako sektore publiko instituzionaleko beste edozein erakundek beren bandera propioak erabiltzen dituztenean, Espainiako banderarekin batera erabiliko dituzte, foru lege honetan araututako moduan.

3. Nafarroako lehendakariak dolu-egun ofiziala dekretatu duenean baizik ez da paratuko Nafarroako bandera haga erdian edo armarrarian dolu-xingola duela, eta ezarritako epean betiere”.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu.

**8. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK****16. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Errepikakorra da 6. artikulurako proposatzen den testuarekiko, eta ez da beharrezkoa.

17. ZUZENKETA**GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

8. artikuluen testua honakoarekin ordezkari proposatzen da:

“1. Foru lege honek eta Nafarroan eta Estatuan indarrean dauden beste lege batzuek ematen dioten babes juridikoa eta izaera ofiziala eduki gabe, zilegi izanen da Europar Batasuneko, Espainiako eta Nafarroako bandera ofizialekin batera ikurrina jartzea Nafarroako erakunde, administrazio publiko eta entitate publikoetan, baldin

eta haien organo kideaniztun gorenak gehiengoz hala erabakitzen badu, betiere ikurrina bakarrik edo tamaina handiagokoa jarri gabe.

2. II. Errepublikaren printzipio eta balio demokratikoak defendatzearen eta 1931-1939 bitartean legitimoki ezarritako eta demokratikoki hautatutako gobernuen alde borrokatu ziren eta hil ziren pertsonen omenaldi gisa, Nafarroako toki-administrazio erakundeetan, haietako organo kideaniztun gorenak gehiengoz hala erabakitzen badu, zilegi izanen da urte bakoitzeko apirilaren 14an II. Errepublikaren hiru koloreko bandera ofiziala jartzea Europar Batasuneko, Espainiako eta Nafarroako bandera ofizialekin batera, izaera ofizialik gabe, foru lege honek eta Nafarroan eta Estatuan indarrean dauden beste lege batzuek ematen duten babes juridikoa eta izaera ofiziala eduki gabe”.

Zioak: Toki-administrazio erakunde eta entitate publikoek banderak publikoki erabiltzeko araubide permisiboago, demokratikoago eta tolerantetagoa ezartzea, ez hain autoritarioa eta errepresibo. Baimena ematen da erakundeek beste bandera batzuk jarri ahal izateko, efemerideak, lotura kulturalak, ekitaldi instituzionalak, elkartasun-ekitaldiak, jaiak, agintarien bisitak eta abar direla eta.

**9. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK****18. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Errepikakorra da 6. artikulurako proposatzen den testuarekiko, eta ez da beharrezkoa.

19. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testuan ageri denaren errepikapena izatea eta zuzenketak hura barne hartzea.

20. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

9. artikulua testua honakoarekin ordeztuko zuzenketa:

"Nafarroako bandera foru erakunde eta toki entitateen egoitzen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tokien barnealdean eta kanpoaldean erabiltzen denean xedatuaren arabera, toki lehenetsia izanen du, eta haren tamaina beste banderarik handienaren tamaina bera edo handiagoa izanen da".

Zioak: Nafarroako banderaren lehentasunezko kokapena ezartzea.

10. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK

21. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Errepikakorra da 6. artikulurako proposatzen den testuarekiko, eta ez da beharrezkoa.

22. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10. artikuluko 2. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK

23. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

11., 12. eta 13. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dator bat lege honen edukiarekin, eta Nafarroako sinboloak erakundeen, herritarren eta hezkuntza arloko bizitza publikoan presente daude jada.

24. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa eta gehiegizkoa da. Proposamenean jasotakoaren berdin-berdina zen arau bat indarrean egon zen Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legean, eta ez zen sekula aplikatu, eta inork ere ez zuen faltan botu.

25. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

11. artikulua testua honakoarekin ordeztuko zuzenketa:

"1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Nafarroako bandera omentzeko ekitaldiak egin eta gizarte zibilak hura erabil dezan sustatzea, horretarako hartuko dituen neurrien bidez.

2. Halaber, zilegi izanen du Nafarroako sinboloen ezagutza eta erabilera sustatzea azterlan eta ikerlanak eginez eta erakusketa, entzunaldi edo sariketarako deialdien bidez.

3. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Nafarroako banderaren agerpen bisuala sustatzea inguruabar historikoak edo Nafarroaren identitate politikoa islatzekoak dituztela irizten dien lekuetan".

Zioak: Nafarroako sinboloak sustatzeko arrazoizko neurriak ezartzea.

12. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK

26. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Proposameneko 12. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa eta gehiegizkoa da. Proposamenean jasotakoaren berdin-berdina zen arau bat indarrean egon zen Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legean, eta

ez zen sekula aplikatu, eta inork ere ez zuen faltan bota.

27. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, hezkuntzaren arloan ez dago gai honetan azpimarra jartzeko beharrik.

13. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

13. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa eta gehiegizkoa da. Proposamenean jasotakoaren berdin-berdina zen arau bat indarrean egon zen Nafarroako Sinboloiei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legean, eta ez zen sekula aplikatu, eta inork ere ez zuen faltan bota.

29. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, toki esparruan ez dago gai honetan azpimarra jartzeko beharrik.

14. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

30. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua kenzeko zuzenketa:

“Nafarroako armarrria osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela, eta ororen gainean errege koroa, antzinako Nafarroako Erresumaren sinboloa.

Hori ezertan galarazi gabe, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du irudi korporatibo bezala Nafarroako armarrri ofizialaren logotipo bat hartzea, diseinu grafiko soilagokoa eta garaiko gustu estetikoetara eguneratua”.

Zioak: Gaia jada araututa dago indarreko legegian, eta gure ustez ez dago horretan azpimarra jartzeko beharrik.

V. KAPITULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

31. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

V. kapitulua, zehapen-araubidea, kenzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa eta gehiegizkoa da. Ez estatuko legediak, ez inongo autonomia-erki-degorenak ere, ez dute beharrezkotzat edo egokitzat jo sinboloiei buruzko araudiaren urraketengatik zehapen administratiboak jartzea.

32. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

V. kapitulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Gaia modu gehiegizkoan, autoritarioan eta errepresiboan arautzen da.

33. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

V. kapitulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkotzat jotzen.

XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

34. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra kenzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkotzat jotzen, 16/2018 Foru Legean jasota dagoelako.

35. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako armariaren aparteko erabilera.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren gehiengoak baimena eman ondoren eta Eusko Jaurlaritzarekin egindako lankidetzaz hitzarmen baten bidez, zilegi izanen du baimena ematea, hark ezarritako baldintzetan, Nafarroako armaria Euskal Autonomia Erkidegoaren armari ofizialaren kuarteletako baten gisara erabiltzeko.

Zioak: Legez zehaztuta ez dagoelako ebatzi gabe iraun duen gai bat ebatzea.

HITZAURREARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

36. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Proiektuaren atarikoaren ordezkari honako testu hau jartzeko zuzenketa:

«Armarria, bandera eta ereserkia Nafarroaren identitate politikoaren sinbolo nagusiak dira.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak Nafarroako armaria eta bandera definitzen ditu 7. artikuluan, Nafarroako Foru Parlamentuaren 1981eko urriaren 26ko arauak bere garaian xedatutakoari jarraituz. Bertan aipatzen denez, armaria osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoek elkargunean esmeralda bat dagoela, eta orenen gainean errege koroa ageri da, antzinako Nafarroako Erresumaren sinboloa. Bestalde, Nafarroako bandera deskribatzen da adieraziz gorria dela, eta erdian armaria duela.

Aipatutako lege organikoak ez du zehazten Nafarroako ereserkia zein den. Alabaina, iritzi orokorrak jo izan du "Gorteen Ereserkia" dela Nafarroako ereserkia, eta hala jaso zen maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legean.

Hain zuzen ere, maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Lege honen antzera (haren tolerantzia kontrajarri egiten zaio 2003an onartutako Foru Legearen izaera inkisitorialari), foru lege berriak hiru sinbolo aipatuak erabilera arautzen du, Nafarroako erakunde eta entitateen bizitza publikoan haien presentzia gauzatzeko.

Erregulazio berriekin hainbat helburu lortzen dira: alde batetik, sinbolo horiei ematen zaie lege-ek Estatuaren sinboloei ematen dieten babes juridiko eta lehentasun gailena; bestetik, sinboloen erabilera Nafarroako erakundeentzat erreserbatzen da; halaber sustatzen da sinbolo horiek aztertzea eta ikertzea, eta sinbolo horiek bizitza sozialean presentzia izatea ere; eta, azkenik, Nafarroako biztanleriaren zati baten sentipen zabala jasoz, aukera ematen da erakunde publiko-kanpoaldeetan beste sinbolo batzuk paratzeko, kultura-, historia-, gizarte- eta abarreko hainbat arazoengatik atxikipen zabala daukatenak, eta halatan areagotu egiten dira gizarte-pluraltasuna, demokrazia eta sentsibilitate desberdinen bizikidetzak.

Sinboloen eta banderen ofizialtasuna ez dago kontrajarri ez pluraltasunarekin ez eta une edo leku jakin batzuetako balioen eta sentsibilitateen islarekin ere; eta soil-soilik ikuspegi itxi, nekez demokratikoa den batetik, zeina urrun baitago hurbileko beste europar herrialde batzuen pentsamolde irekitik eta are maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legearen indarralditik ere, pentsa daiteke bandera ofizialak baizik ezin direla jarri eta herrikoia edo soziala den hori zentsuratu beharra dagoela, herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak nahi dutenaren kontra. Nafarroa herritar guztien bizikidetzarako gunea da, eta haren konplexutasun sozial eta politikoak merezi du, bai, ahalegin kolektibo bat, sentsibilitate guztiak eraikin publiko zibiletan jaso eta ezagutarazi ahal izateko, herritarren sentimenduak jarraituz, muga bakarrak direla balio demokratikoekiko eta giza eskubideekiko errespetua eta ez besterik, eta formalki ezarritako gehiengo demokratikoen babesarekin betiere.

Halaber, lehenago hasitako bideari jarraituz, Foru lege honetan eutsi egiten zaio diktadura frankista identifikatzen edo islatzen duten sinboloak desagerrarazteko konpromisoari, garai beltza izan baitzen Nafarroaren historian, non askatasuna, pluralismoa eta berdintasuna gogor eta krudelki jazarrita eta zapalduta egon baitziren.

Bestalde, araudi berrian Nafarroako herritarren zati handi baten sentipen zabala ere jasotzen da, ikurrinaren edo euskal banderaren presentzia instituzionala irrikatzen baitu. Ahalbidetzen da bande-

ra hori egon dadila Nafarroako sinboloari eta lege jarri behar direnei kalterik egin gabe, eta presentzia hori, nolana ere, baldintzatuta uzten da udal-erri edo erakunde bakoitzeko ordezkariaren gehiengoaren erabakiari, demokrazia aurreratu batean behar den bezala».

Zioak: Hobeto deskribatzea Foru Legearen helburua, demokratikoa eta tolerantzia, eta ez hain autoritario eta zigortzailea.

37. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Atariko honela geldituko da idatzita:

"Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 7. artikulua xedatzen du Nafarroako armaria urrezko katez osaturik dagoela, hondo gorriaren gainean, esmeralda bat erdian, bere kate-mailazko zortzi besoek elkargune gisa, eta haien gainean errege-koroa, Nafarroako antzinako erresumaren sinboloa, eta Nafarroako bandera gorria dela, armaria erdian kokatuta. Bidezkoa da xedapen horiek foru lege garatzea".

Zioak: Nafarroako sinboloak Nafarroako herritar guztienak dira. Ez da bidezkoa haiek arautzen dituen foru legeak proposamenean agertzen diren antzeko jarrera-adierazpen ideologikoak jasotzea, ez baitute zertan partekatua izan gizarte plural eta pluralista batean.

38. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Atariko honako edukien ordezkari zuzenketa:

«Foruaren Hobekuntzako 7. artikulua Nafarroako sinbolo bereki gisa jasotzen ditu bandera eta armaria. Ondoren, "Gorteen ereserki" deitutakoa Nafarroako sinboloak arautzen dituen maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legearen bidez erantsi zen sinbolo bezala.

3/2017 Foru Legearen bidez, Nafarroako sinboloak arautzen dituen apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetu zen. Lege horren lehenengo xedapen iragankorrean honako hau ezartzen zen: "Sinboloari buruzko foru lege berri bat onetsi arte, Nafarroako ereserki gisa mantenduko da "Gorteen Himnoa" deiturikoa".

Lege honen bidez lege-hutsune bat bete nahi da, sinbolo horien ezaugarri formalak finkatzeari, Nafarroako Foru Komunitateko agintari sinbolo horiek erabiltzeari, eraikin publikoetan duten kokalekuari eta haien presentzia behartzen duten dokumentu eta egintzei dagokienez, eta halaber arautu nahi da beste erakunde-sinbolo batzuekiko gorde beharreko lehentasun-hurrenkera.

Arauketa honen bidez ezartzen da Nafarroako sinbolo berekiak nola eta zer ezaugarriekin izanen diren herritarren bizitzaren parte eta toki gailena izanen duten ekitaldi publikoetan eta solemnitaterik ezaugarri bereziak dituztenetan».

Zioak: Erkidegoaren sinbolo bereki eta identifikatzaileen ezaugarriak eta erabilera-beteki-zunak arautu nahi dira; izan ere, Nafarroako Kontseiluak ezarri zuen bezala, lege bat besterik gabe eta ordezkari araudirik gabe indargabetzeak eragiten duena da lege horrek eraentzen duen esparru zehatzean lege-gabezia edo -hutsunea gertatzea. Hutsune hori ordenamendu juridikoko ordezkari beste arau batzuen bidez bete beharko da. Horri dagokionez, Nafarroako Kontseiluak uste du indargabetzeak segurtasun juridikoa uki dezakeela, eta gerta daitekeela administrazio publiko desberdinek har ditzaketen erabakien legezkotasun arrunta dela-eta beste gatazka bat sortzea, ofizialki Nafarroako Foru Komunitatearen sinbolo bereki gisa aitortu ez diren sinboloak jartzeari edo erabiltzeari buruz.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Azken lau urteotan euskaraz edo euskararekin zerikusirik duten gaiei buruz aurkeztu zaion kexa-kopuruari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egindako txostena, azken lau urteotan euskaraz edo euskararekin zerikusirik duten gaiei buruz aurkeztu zaion kexa-kopuruari buruzkoa (10-19/DFP-00004).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Azken lau urteotan euskaraz edo euskararekin zerikusirik duten gaiei buruz aurkeztu zaion kexa-kopuruari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Erakundeak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (10. or.).

II. Informazio-eskaerari emandako erantzuna (11. or.).

I. SARRERA.

2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak eskatuta, honako erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txostena egin dezan euskaraz edo euskararekin lotutako gaiez aurkeztutako kexei buruz”.

Eledunen Batzarraren erabakia 2019ko azaroaren 27an igorri zitzaion Nafarroako Arartekoaren

erakundeari, eta haren erregistroan sarrera eman zitzaion.

Erabaki horrekin batera, aipatu foru parlamentariaren idazkia aurkeztu zen, 2019ko irailaren 18koa, zeinean eskatzen baitzen Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Arartekoari honako gai hauei buruzko txostena egiteko eskaria igor ziezaiola:

“1. Azken lau urteetan zehar Arartekoari aurkeztu zaizkion kexetatik, euskararekin edo hizkuntza eskubideekin lotutakoak ez direnetatik, zenbat aurkeztu zaizkio euskaraz?

2. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euskar delata eta aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat aurkeztu dituzte gizabanakoek eta zenbat kolektiboek?

3. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euskaraz aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat aurkeztu dituzte gizabanakoek eta zenbat kolektiboek?

4. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euskararekin zerikusirik ez duten gaiei buruz euskaraz aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat aurkeztu dituzte gizabanakoek eta zenbat kolektiboek?

5. Elkarte edo gizabanako bakoitzak azken lau urteetan zehar Arartekoari euskararekin lotutako gaiei buruz aurkeztu dizkion kexen batura.

6. Elkarte edo gizabanako bakoitzak azken lau urteetan zehar Arartekoari euskaraz baina euskararekin lotuta ez dauden gaiei buruz aurkeztu dizkion kexen batura.”

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera aztertuta, jo zen bateragarria zela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.d) artikuluan xedatutakoarekin.

Legezko arau horren arabera, Nafarroako Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumenen esparruan, zeina baita Konstituzioak eta

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-
tzeari buruzko Lege Organikoak babestutako
eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobe-
tzea.

Txosten-eskaerak arretagai du euskaraz edo
euskarari buruz herritarrek —bai nork bere izene-
an, bai taldean— Nafarroako Arartekoari azken
lau urteetan aurkeztutako kexen kopurua.

Horrenbestez, txostena egitea erakunde honek
dauzkan eskumenen barruan sartzen da, Konstitu-
zioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta
Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako
eskubide eta askatasunak Foru Komunitatearen
eskumen-eremuan defendatzeko eta babesteko
daukan eginkizuna dela eta (Foruaren Hobekun-
tzako 18.ter 1. artikulua).

II. INFORMAZIO-ESKAERARI EMANDAKO ERANTZUNA

Informazio-eskaera azken lau urteei buruzkoa
da. Informazio osatuena emate aldera, 2015,
2016, 2017 eta 2018ko ekitaldiei buruzko informa-
zioa ematen da, azken lau ekitaldi osoak baitira,
bai eta 2019ko informazioa ere, azaroaren 30era
artekoa, data horretara bitartekoa baita txosten
hau egitean eskuragarri dagoena.

1. Azken lau urteetan zehar Arartekoari aur-
keztu zaizkion kexetatik, euskararekin edo hizkun-
tza eskubideekin lotutakoak ez direnetatik, zenbat
aurkeztu zaizkio euskaraz?

2015eko ekitaldia: 24

2016ko ekitaldia: 7

2017ko ekitaldia: 3

2018ko ekitaldia: 5

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa): 26

2. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euska-
ra dela-eta aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat
aurkeztu dituzte gizabanakoek eta zenbat kolekti-
boek?

2015eko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 600

– Kolektiboek: 10

2016ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 13

– Kolektiboek: 3

2017ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 9

– Kolektiboek: 8

2018ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 23

– Kolektiboek: 29

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

– Gizabanakoek: 8

– Kolektiboek: 18

3. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euska-
raz aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat aurkeztu
dituzte gizabanakoek eta zenbat kolektiboek?

2015eko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 621

– Kolektiboek: 8

2016ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 9

– Kolektiboek: 5

2017ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 5

– Kolektiboek: 8

2018ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 12

– Kolektiboek: 29

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

– Gizabanakoek: 27

– Kolektiboek: 19

4. Azken lau urteetan zehar Arartekoari euska-
rarekin zerikusirik ez duten gaiei buruz euskaraz
aurkeztu zaizkion kexetatik, zenbat aurkeztu dituz-
te gizabanakoek eta zenbat kolektiboek?

2015eko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 23

– Kolektiboek:

2016ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 3

– Kolektiboek: 4

2017ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 2

– Kolektiboek: 1

2018ko ekitaldia:

– Gizabanakoek: 3

– Kolektiboek: 2

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

– Gizabanakoek: 24

– Kolektiboek: 2

5. Elkarte edo gizabanako bakoitzak azken lau urteetan zehar Arartekoari euskararekin lotutako gaiei buruz aurkeztu dizkion kexen batura.

2015-2018 ekitaldiak, guztira:

– Gizabanakoek aurkeztutakoak: 645 kexa (kexa horietatik 592k eskatzen dute Etxarri-Aranazko osasun-etxeko osasun-langileengandik arreta euskaraz jaso ahal izatea, osasun-etxe horrek eremu euskalduneko hainbat udalerrri artatzen baititu).

- Elkarteek aurkeztutakoak: 50
- Administrazioan Euskaraz Taldeak: 29
- Hizkuntza Eskubideen Behatokiak: 13
- Baztango Udalak: 2
- Erronkari Iboxaren Batzordeak: 1
- Zizur Zendearen udalerriko hainbat kontzejuk: 1
- Nafarroako Odontologoak eta Estomatologoak Elkargotakoak: 1
- Altsasuko Jesusen Bihotza Ikastetxeak: 1
- Zizurko BHIko irakasleen plantillak: 1
- ELA sindikatuak: 1

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Gizabanakoek aurkeztutakoak: 8
- Elkarteek aurkeztutakoak: 18, guztiak ere Administrazioan Euskaraz Taldeak aurkeztuak.

6. Elkarte edo gizabanako bakoitzak azken lau urteetan zehar Arartekoari euskaraz baina euskararekin lotuta ez dauden gaiei buruz aurkeztu dizkion kexen batura.

2015-2018 ekitaldiak, guztira:

- Gizabanakoek: 31
- Elkarteek aurkeztutakoak: 8
- Aizarozko Bizilagunen Elkarteak: 1
- Baztango Udalak: 1
- Berako Udalak: 1
- Etxerat Elkarteak: 1
- Arrano Elkarte Xake Taldeak: 1
- Kalaxka Elkarteak: 1
- Haur eta lehen hezkuntzako eskolaldi etengabe eta malguari buruzko ebazpena berraztertzearen aldeko familiek: 1
- Orkoiengo bizilagunek: 1

2019ko ekitaldia (urtarrila-azaroa):

- Gizabanakoek aurkeztutakoak: 24
- Kolektiboen arabera: 2, STEE-EILAS sindikatuak eta Katxiporreta Kooperatibak.

Eta hori guztia jakinarazi behar diot Nafarroako Parlamentuari erakunde horrek egin digun txosten-eskariari erantzuteko.

Iruñean, 2019ko abenduaren 12an

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea